



Ospitalea

etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Hospittela / Ospittela

“... una casa destinada a Hospital, situada en el barrio de Olacuenta... en jurisdicción de Berriz: que se compone de piso llano principal y camarote, ... Ayuntamiento de la anteiglesia de Berriz... viene poseyendo a título de dueño quieta y pacíficamente la finca de este numero desde tiempo inmemorial, sin que conste de los antecedentes obrantes en el archivo de aquel municipio de qué persona ó Corporación se adquirió, destinándose hoy a Hospital...”
DJE 9/29 or. (1913)



43° 10' 9"

2° 34' 19"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Lehenago eraiki bazen ere, batez ere XX. mendean aurkitu izan ditugu etxe honen gaineko aipamenak: *Hospital* (1905, BUA, 40. or.) eta *Hospital* (1967, BUA, CE). Ikusten denez, agerietako aipamenetan ez du inongo aldaketarik izan. Auzotarren artean, *Hospittela* eta *Ospittela* ahozko formak dira erabilienak.

Izenak adierazi moduan, garai batean ospitalea izandakoa da. Errege-bidearen ondoan zegoen, eta ostatu edo atsedean hartzeko premia zutenentzako babeslekua zen. Egurrezko egiturak Berrizko beste etxe asko gogorarazten ditu. Aitzitik, etxearen alboak egituratzen dituzten goitik beherako harrizko hormek lotura garbia daukate *Olaberreka* etxearekin (**Ikus Olaberreka**), nahiz eta hura handiagoa den. Izan ere,

eraikin hau tankera horietakoak baino estuagoa da, eta atartea eskuman dauka, erdian barik. Horregatik, alde horretako horma angeluari doitzen zaio, atarteko egurrezko dintelaren janba gisa jarduteko, kalitate oneko silarriekin hornituta.

Beheko solairuko beste aldea harlangaitzaz eraiki zuten, erdian daukan leihoaren ertzak eta janbaren kantalak izan ezik. Arestian esan moduan, gaineko solairua eta ganbara egurrezko egitura daukate. Lehenengoak hiru leiho ditu, erdikoa balkoi bihurtu dutela, eta ganbaran, berriz, txori-tokiak ikus daitezke. Tarteko hormak luzituta eta zurituta daude. Bi isurkiko teilatua du, eta hegal zabalari eusteko, zurrezko habeak.

toponimia

Gaur egun zail da asmatzea zer nolako baliabide eskasak zeuden herrietan eritasunak sendatzeko. Sarritan ospitale bat egoten zen, gaur egungo ospitaleekin zer ikusi gehiegi ez zuena. Herriarenak baziren ere kasu askotan ongile batek utzitako doaitza bati esker bizi ziren ospitale hauek. Antzina herri guztietan egoten zen ospitale bat, askotan ermita bati atxikia, herrikoak eta atzerritarrak babesteko. Etxe xumeak eta baliabide eskasekoak ziren baina sendatzeko aukera bakarra zen.